



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIAK UKATU EGIN DAU HIRU ALBAITARI KONTRATETAKO PROZESUAN IRREGULARTASUNIK EGON DANIK

- Elixabete Etxanobe Landajuela Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak, EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak eskatuta Bizkaiko Batzar Nagusietan egindako agerraldian, esan dau kontratetako prozedura “zuzena” izan dala eta berak dakienez ez dala ezelango “errekursorik” aurkeztu, baina onartu dau “zuhurtziagaitik” plazak esleitzeko agindua gelditu egin dala.
- Sailak “ikertzen jarraitzen dau” ESK sindikatuak egindako salaketak argitzeko, baina oraingoz ez dau irregulartasunik atzemon.
- Sindikatuak urrian salatu ebanek, bitarteko hautagai bat izan zan proba praktiko bateko ariketetako bat gainditu eban bakarria.

(Bilbon, 2021eko abenduaren 9an). Elixabete Etxanobe Landajuela Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak, EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak eskatuta Bizkaiko Batzar Nagusietan egin dauen agerraldian esan dau hiru albitari kontratetako prozedura “zuzena” izan dala, eta bere sailak ez dauela “ezelango irregulartasunik” antzeman orain arte, joan dan urrian ESK sindikatuak, komunikabide baten bitartez egin eban salaketaren barri izan ostean edegi zan barruko ikerketa prozesuaren barruan.

Etxanobek, Lan Eskaintza Publiko horrek denporan zehar egin dauen bidearen kontakizuna egin dau fase baktxaren inguruan. Aldundiak joan dan urtean edegi eban eskaintza hori, Nekazaritzako zerbitzuan hiru funtzionario-lanpostu beteteko, eta 80 persona aurkeztu ziran. Horreetatik 4k bakarrik (bitarteko batek eta Aldunditik kanpoko hiruk) gainditu ebezan, azkenean, epaimahai “independentek” antolatutako probak. Epaimahai horrek modu anonimoan zuzendu ebazan azterketa biak, bata 100 galdera eukazan teorikoa eta bestea hiru ariketa jasoten ebazan praktikoa.

Diputatuak “errespetua” eskatu deutse hautaketako epaimahaia osatu daben lau personen aurrean, hau da, hautaketa prozesu horreetara euren borondatez aurkeztu diran eta egunero egiten daben beharrari lan “itzela” gehitzen deutsan Aldundiko funtzionarioen aurrean. Kasu horretan, ez dago epaimahaiko personek “ezer okerrik” egin dabela erakusten dauen “zantzurik”. Edozelan be, diputatuak esan dau



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“zuhurtziagaitik” hiru plazen behin betiko esleipena bertan behera ixtea erabaki dauela, Bilboko auzitegi batek prozesua argitzeko edegi dituan izapideak amaitu arte.

Oposizinoko taldeek egiaztatu dabenez, epaimahaiak ikertu behar dauen eta diputatuak “argitu ez dauen” gaietako bat, Elkarrekin Bizkaia, EH Bildu eta Talde Berezia-PP Bizkaia taldeek adierazo dabenez, da ea behin-behinean plaza lortu dauen hautagaietako batek bigarren azterketako hiru proba praktikoetako baten inguruko informazioa “aldez aurretik” euki dauen. Azterketa hori 2020ko azaroaren 30ean egin zan, eta 9 hautagai heldu ziran bertara. Aldundiak justiziari emon deutso informazio hori, justiziak, “ezelango salaketarik aitatu barik” eskatu eutsan eta. Etxanobek esan dauenez, Batzar Nagusietako taldeei ez deutse xehetasun gehiago emongo, gaia “sub judice” dagolako. Aurreratu ahal izan dauenez, proba horretan oposizinogile bakar batek be ez eban gitxieneko puntuazioa (0), ezta gehienekoa (3) lortu.

Proba horretan edozein irregulartasun dagola baiezten bada, oposizinoko taldeek plazen esleipena geldiarazotea eta erantzukizun guztiak argitzea eskatu dabe, eta, horrez gain, gertaera horreek barriro gerta ez daitezkan neurriak hartzea. Aldundia babesten daben taldeek gaia Bilboko 6. epaitegian itxi arte itxoiteko eskatu dabe, baina ohartuarazo dabe Aldundiak ez dauela “salaketarik” jaso, eta Fiskaltza ez dala Aldundiagaz hartu-emonetan jarri azalpenak eskatzeko. Horrek, “baten bat guzurretan edo susmoak bultzatzen” ari dala pentsatzera konbidetan dau, Jesus Lekerikabeaskoa bozeroale jeltzalearen berbetan.

BIZKAIA EGITEN, BANDERAK ETA FITOREN KONTZERTUA

Bizkaia Egiten Agintaldiko Plana izan da gaur Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordeak jorratu dauen gaietako bat, Elkarrekin Bizkaia taldeak plan horren informazio eguneratua eskatu dauelako. Pandemiak horretarako aukerea emoten badau, Aldundiak “eskualdeko topaketak” berreskuratuko ditu, herritarrei planean proposatutako 120 jardueren inguruko kontuak emoteko. Plan horren inguruko 2021eko txostena “2022ko lehenengo hiruhilekoan” prest egoteko konpromisoa hartu dau Etxanobek, pandemiaren eraginagaitik 2020ko balantzea bigarren seihilekoan aurkezteak ekarri eban atzerapena gainditu ostean.

Beste alde batetik, batzordeak ontzat emon dau Artea eta Ugao-Miraballeseko banderak sortzea, EH Bilduren abstentzino bakarragaz, eta Arrankundiaga udalerrriaren izenaren ordeztu Arrankundiaga-Zollo jartea, kasu horretan Batzar Nagusietako talde guztien onespengaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Batzordeak datorren urteko bagilaren 11n San Mamesek hartuko dauen Fitoren formatu handiko kontzertua baieztu du. Sarrera guztiak salduta, Elkarrekin Bizkaiak galdetu dau Aldundiak zer baliabide jarriko dituan ekitaldia ekarteko, eta artistaren, aukeratutako lekuaren eta antolatzailearen aukeraketaren errazioen barri emoteko be eskatu dau. “Hemengo” artista batek emongo dauen eta “gustu eta sensibilidade asko” batuko dituan kontzertua da, eta “animoa berreskuratze” balioko dau, Lorea Bilbao Euskara, Kultura eta Kirol diputatuak nabarmendu dauenez. Ganera, “bertako” enpresa sustatzaileak bultzatu dau. “Formatu handiko” kontzertuetarako baldintzak beteten dituan Bizkaiko gune bakarra dalako aukeratu da San Mames.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN NIEGA IRREGULARIDADES EN EL PROCESO DE CONTRATACIÓN DE TRES VETERINARIOS/AS

- La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe Landajuela, en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia solicitada por EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, asegura que el procedimiento para la contratación ha sido “correcto” y que no le consta “ningún recurso”, si bien admite que la orden de adjudicación de las plazas se ha paralizado “por prudencia”.
- El servicio foral de selección “sigue investigando” para aclarar las denuncias hechas públicas por el sindicato ESK sin que por el momento haya detectado “ninguna” irregularidad.
- El sindicato denunció en octubre que un solo candidato interino logró superar uno de los ejercicios de una prueba práctica.

(Bilbao, a 9 de diciembre de 2021). La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe Landajuela, en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia, solicitada por EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, ha asegurado hoy que el procedimiento para la contratación de tres personas veterinarias culminado a finales de 2020 ha sido “correcto”, sin que su departamento haya detectado “ninguna” irregularidad hasta el momento, en un proceso de investigación interno que fue abierto tras conocer una denuncia del sindicato ESK.

Etxanobe ha hecho un relato temporal de las distintas fases por las que ha pasado esta Oferta Pública de Empleo, abierta por la Diputación el año pasado para cubrir tres puestos de funcionariado en el servicio de Agricultura al que se presentaron 80 personas. De ellas, sólo 4 (un interino y tres externos a la Diputación) superaron finalmente las distintas pruebas organizadas por un tribunal “independiente” que corrigió de forma “anónima” los dos exámenes, uno teórico con 100 preguntas y otro práctico con tres ejercicios.

La diputada ha pedido “respeto” para las cuatro personas que han conformado el tribunal de selección, funcionarios y funcionarias de la Diputación que se presentan de forma “voluntaria” a estos procesos de selección y que suman, a su labor habitual, un trabajo “ingente”. En este caso, no existe “ningún indicio” de que las personas del tribunal hayan hecho “nada incorrecto”. En cualquier caso, la diputada ha señalado que



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“por prudencia” su departamento ha decidido paralizar la adjudicación definitiva de las tres plazas hasta que un tribunal bilbaíno concluya las diligencias que ha abierto para esclarecer el proceso.

Según han constatado los grupos de la oposición, una de las cuestiones que tiene que indagar el tribunal y “que no ha aclarado” la diputada, según Elkarrekin Bizkaia, EH Bildu y grupo Mixto-PP Bizkaia, tiene que ver con que si uno de los candidatos que provisionalmente ha sido elegido, pudiera haber obtenido información “previa” de una de las tres pruebas prácticas del segundo examen al que accedieron 9 candidatos/as, y que se llevó a cabo el 30 de noviembre de 2020. Etxanobe ha confirmado que la Diputación ha entregado la información sobre el proceso requerido por la justicia, sin que ésta se haya referido al caso “ni a ninguna denuncia”, y se ha excusado en no poder ofrecer más detalles a los grupos junteros al estar “sub judice”. Lo que ha podido adelantar es que en esa prueba, ningún opositor alcanzó la puntuación máxima (un 3) pero tampoco la mínima (0).

De confirmarse alguna irregularidad en esta prueba, los grupos de la oposición han pedido la paralización de la adjudicación de las plazas y que se depuren “todas las responsabilidades”, además de que se tomen medidas para que, de confirmarse las irregularidades que denuncia el sindicato, no se repitan. Los grupos que apoyan al Gobierno foral han instado a esperar a que se cierre el asunto en el juzgado nº 6 de Bilbao, si bien han advertido de que la Diputación no ha recibido “ninguna denuncia” y “ni siquiera” la Fiscalía se ha puesto en contacto con el ente foral para solicitar información, lo que invita a pensar que “alguien está mintiendo o alentando sospechas”, según el portavoz jeltzale Jesús Lekerikabeaskoa.

BIZKAIA EGITEN, BANDERAS Y CONCIERTO DE FITO

El Plan de Mandato Bizkaia Egiten ha sido también uno de los asuntos tratados hoy en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de la Cámara vizcaína, ya que el grupo Elkarrekin Bizkaia ha pedido información actualizada de dicho plan. Si la pandemia lo permite, la Diputación recuperará los “encuentros comarcales” para rendir cuentas a la ciudadanía sobre las 120 actuaciones propuestas en el plan. Etxanobe se ha comprometido a que el informe de 2021 sobre este plan esté listo “en el primer trimestre de 2022”, dejando atrás el retraso que supuso presentar en este segundo semestre del año el balance correspondiente al ejercicio anterior por el impacto de la pandemia.

Por otro lado, la comisión ha dado el visto bueno a la creación de las banderas de Artea y Ugao-Miraballes, con la única abstención de EH Bildu, y la modificación del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

nombre del municipio de Arrankundiaga por Arrankundiaga-Zollo, en este caso con el visto bueno de todos los grupos junteros.

La comisión ha concluido con la confirmación del anunciado concierto de Fito, que San Mames acogerá el 11 de junio del año próximo. Con todas las entradas vendidas, Elkarrekin Bizkaia ha preguntado por los medios que la Diputación aportará para traer dicho evento y por la elección del artista, del lugar elegido y del organizador. Es un concierto “para recuperar el ánimo” con un artista “de aquí” que aglutina “muchos gustos y sensibilidades”, y con una promotora “local”, ha destacado la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte, Lorea Bilbao. Se ha elegido San Mames porque es el “único espacio” en Bizkaia que reúne las condiciones para ofrecer conciertos “de gran formato”.